

# **OIARTZUNGO PLANEAMENDUKO ARAU** **SUBSIDIARIOEN** **ZATIKAKO BERRIKUSKETA**

*ARR-1, ARR-5, UGA 1A, UGA 1C, UGA 1D, UGA 2, UGA 4, UGA5A, UGA11, UGA  
12, UGA 14, ELI 3, ELI 4, ELI 6 eta LAN 3 areei dagokiena*

BEHIN BETIKO ONARPENA

2009KO URRIA

6. TXOSTENA

## **JASANGARRITASUN EKONOMIKOAREN MEMORIA**

6. **TXOSTENA.- JASANGARRITASUN EKONOMIKOAREN MEMORIA**

## AURKIBIDEA

	<u>Or.</u>
1.- <u>SARRERA</u> .....	6.3
2.- <u>UDAL AURREKONTUAREN BIDERAGARRITASUNA: KONTZEPTUAK</u> .....	6.3
3.- <u>PLANEAMENDU AASS ALDIA (1995 – 2007)</u> .....	6.4
4.- <u>SISTEMA OROKORREN INGURUKO JARDUERA NAGUSIAK, ARAUETAN AURREIKUSITAKOAK (2007-2015)</u> .....	6.5
5.- <u>UDAL ADMINISTRAZIOAREN GAITASUN EKONOMIKOAREN JUSTIFIKAZIOA</u> .....	6.7
6.- <u>UDAL ADMINISTRAZIOAREN GAITASUN EKONOMIKOAREN JUSTIFIKAZIOA, BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOAREN AZTERKETA PROSPEKTIBOA</u> .....	6.8

### 1.- SARRERA

2/2006 legearen garapenerako eta osagarria den 105/2008 Dekretuko 31 artikulua babesean, Udal Ogasunaren jasangarritasun ekonomikoari buruzko txosten hau idazten da Berrikuspen Partzialari dagokion txosten honetan aurreikusten diren jarduketan aurrean.

## 2.- UDAL AURREKONTUEN BIDERAGARRITASUNA – KONTZEPTUAK.

Udal altxortegiaren inbertsio ereduaren jarraipena bermatzea da helburua, 2007-2015 aldirako hirigintza-helburuak betetzeko, horixe baita, hain zuzen, arau subsidiarioak berrikusteko gutxi gorabeherako epea, orain hasiko dena. Horretarako, 1995eko arau subsidiarioak gauzatzeko aldiko parte-hartze mailaren analisi konparatiboa hartuko da abiapuntu gisa; horrela, oinarritzko erreferentzia maila bat ezarriko da, prospektiba moduan udal aurrekontuaren bideragarritasunaren oinarriak finkatzeko.

2.1.1. Tokiko Administrazioaren diru sarrerren sailak honako atal hauek ditu:

I. ATALA	Zuzeneko zergak.	}	DIRU-SARRERA
II. ATALA	Zeharkako zergak.		
III. ATALA	Tasak.		
	ARRUNTAK		
IV. ATALA	Transferentzia arruntak.		
V. ATALA	Ondareagatiko diru-sarrerak		
VI. ATALA	Inbertsioak besterentzea	}	KAPITAL-SARTZEA
VII. ATALA	Kapital transferentziak		
VIII. ATALA	Aktibo finantzarioak		
IX. ATALA	Pasibo finantzarioak		

## 2.1.2. Tokiko Administrazioaren gastuen sailak honako atal hauek ditu:

I. ATALA	Langileen ordainsariak	}	GASTU ARRUNTA
II. ATALA	Ondasun eta zerbitzu erostea		
III. ATALA	Interesak		
IV. ATALA	Transferentzia arruntak		
V. ATALA	Kreditu inkorporatuak		
VI. ATALA	Inbertsioak-Kred. inkorporatuak	}	KAPITAL GASTUA
VII. ATALA	Kapital-transferentziak		
VIII. ATALA	Aktibo finantzarioak		
IX. ATALA	Pasibo finantzarioak		

DIRU-SARRERA ARRUNTEN eta GASTU ARRUNTEN arteko aldea da INBERTSIO atalari dagokion aurrekontu marjina.

Diru sarreren inguruko VII. atalaren arabera, gorantz zuzendu dute hori, hau da, diru-laguntzak edo diru-sarreren IX. atala, alegia, maileguak, kasuen arabera.

### 3. OIARTZUNGO PLANEAMENDU ARAU SUBSIDIARIOEN ALDIA (1995-2007)

#### Inbertsio maila, guztira

Urteak	B. absolutua	Balio erlatiboak		Multzoa
	OIARTZUN	OIARTZUN		
GIPUZKOA				
2007	7.871.700	39,0	25,4	19,3
2006	5.257.488	28,9	25,3	23,5
2005	3.948.867	15,5	17,1	20,2
2004	19.165.712	70,7	37,4	21,7
2003	16.143.940	59,4	34,8	25,5
2002	8.675.754	55,5	27,2	24,6
2001	5.873.992	48,1	26,5	22,9
2000	3.591.876	36,9	22,0	19,6
1999	2.929.873	33,2	29,4	19,2
1998	1.697.821	24,6	27,9	22,6
1997	1.216.638	18,9	24,3	20,5
1996	2.907.383	37,0	22,4	19,2
1995	2.207.580	33,1	19,2	25,4

1995-2007 (13 urte) aldirako inbertsioen inguruko atal orokorra 81.488.624 €-koa izan da; beraz, inbertsioa 6.268.355 €-koa izan da urtean, batez beste.

#### **4.- SISTEMA OROKORREN INGURUKO JARDUERA NAGUSIAK, ARAUETAN AURREIKUSITAKOAK (2007-2015 ALDIA).**

Jurisprudentziak planeamendu orokor mailan ezarri bezala, aurreikusitako jardueren finantzazio ildo nagusiak aurreikusten ditu tako azterketa ekonomiko-finantzarioak; kasu honetan, arau subsidiarioen berrikusketa partzialak aurreikusitakoak.

Txosten honek planeko proposamen nagusien inguruko inbertsioen kostea aztertzen laguntzen du, bideragarri diren edo ez ikusteko. Administrazio Publikoaren mende egongo da inbertsioa, ez Udal Administrazioaren mende soilik; izan ere, lurraldeen arteko elkarreraginaren eta eskumen banaketarako elementu juridiko-politikoaren ondorioz, interesak eta eskumen publikoak koordinatzeko elementu da azterketa ekonomiko-finantzarioa Oiartzunentzat.

Duten dimentsio fisikoagatik eta lurralde mailan EAE osoari eragiteagatik, Oiartzungo Udalaren aurrekontua eta eskumena gainditzeko azpiegitura handiekin loturiko hainbat jarduerak. Hori dela eta, Oiartzungo Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren, Estatuaren edo bestelako edozein organismo publikoren eskumenean koordinazioaren isla dira arauak; parte hartzen duten administrazioen inbertsio gaitasunera bizkor egokitzeko besteko malgutasuna dute, gainera, legez planifika daitekeen arren, ekonomiari begira badaezpadakoa edota aurrez ikusezina baita esparrua.

Ondorengo taulan, sistema orokorreari, azpiegiturei edo zuzkidurei buruzko jarduerak garrantzitsuenak nagusiak ageri dira, arauetan aurreikusitakoak, bai eta udal ekimen publikoekiko lotura ere.

**OIARTZUNGO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSTE PARTZIALA (2007-2015).****Sistema orokorrak (zuzkidurak eta berdeguneak). Materialki gauzatzeko aurrekontua**

ARRAGUA	Larzabalgain parkea .....	180.000 €
	Zuzkidura sist. orokorra(Lanbide Zentroa).....	(1)
UGALDETXO	Ibai-parkea.....	180.000 €
	Gizarte eta Kultur Etxea .....	500.000 €
	Lurrazpiko aparkalekuak.....	560.000 €
ELIZALDE	Erdiko parkea .....	250.000 €
	Tanatorioa .....	420.000 €
	Hurtzaindegia .....	700.000 €
	Liburutegia .....	1.800.000 €
	Lur azpiko aparkalekuak, azoka eta bestelako ekipamenduak .....	1.420.000 €
ZERRADI BERRI	Zuzkidura zehazteke eta programatzeke .....	250.000 €
ZERRADIBERRI	Zuzkidura zehazteke eta programatzeke.....	1.000.000 € (2)
LANBARREN	Zuzkidura zehazteke eta programatzeke .....	1.000.000 € (2)
INBERTSIOA GUZTIRA	.....	8.260.000 €

(1) Administrazio Sektorial Eskumendunari dagokio.

(2) Esparruko beharren eta udal programazioaren arabera.

Berrikuste partzialaren arabera, inbertsioak zazpi milioi eta zazpiehun euro inguru kostako dira guztira.

## **5.- ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPEN PARTZIALAK OIARTZUNGO PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN AZTERKETA EKONOMIKO-FINANTZARIOAN IZANGO DUEN ERAGINA.**

Oiartzungo planeamenduko arau subsidiarioen berrikuspen partzialak ezabatu egin du Ugaldetxoko ibai-parkeko saihebidia, eta proposatutako beste ordenazio aukeran sartu ditu horren kosteak. Era berean, Zerradi-berri (UGA-12)-ren kudeaketari lotuta geratu da Zerradirako biribilgunea ere.

Hala, udal finantzazioaren mende utzi ditu Oiartzungo Udalak arauetan aurreikusitako honako jarduera hauek:

- Ergoiendik pasatzen den GI-3420 zeharbidea hobetzea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera.
- Lurzoruak erostea eta Trapadako eta Leunzabalako landako jolas-parkeak egokitzea.
- Itu-3 Gallastegi HIEko lurzoru guztia (41.100 m<sup>2</sup>) eta pabiloiak erostea, ekimen pribatuari emateko horrek bere kontura kirol instalazio berriak eraiki ditzan.
- Kultur Etxea (ELI-1-D) eraikitzea.

Ugaldetxoko saihebidia kenduta, arau subsidiarioetan aurreikusitako inbertsioak 5.000.000 € ingurukoak izango dira guztira, kosteen estimazioen arabera.

Inbertsio hauen kostea 12.260.000 €-koa izango denez guztira (kontrata-aurrekontua 15.779.400 €), onargarria da Oiartzungo Udalak arau subsidiarioak garatzeko, datozen 8 urteetarako inbertsioetarako duen gaitasun ekonomikoa kontuan hartuta.

## 6.- UDAL ADMINISTRAZIOAREN GAITASUN EKONOMIKOAREN JUSTIFIKAZIOA. BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOAREN AZTERKETA PROSPEKTIBOA

Aurreko hamarkadako batez besteko inbertsioa (6.268.355 euro urtean) eginda eta inbertsioa urtero-urtero programatuta, honela ezar litezke obra amaituen inbertsioaren parametroak, eurotan:

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Inbertsioak egiteko ahalmena	6.268.355	6.268.355	6.268.355	6.268.355	6.268.355	6.268.355	6.268.355	6.268.355	6.268.355
AASSen ondorioz egin beharreko obrak	1.753.267	1.753.267	1.753.267	1.753.267	1.753.267	1.753.267	1.753.267	1.753.267	1.753.267

Hurrengo aldirako (2007-2015) aurreikusitako diru sarrera arrunten arabera, ez da defizitrik egongo Udalak beharko dituen diru-sarrerei dagokienez. Dena dela, onar dezake Udalak gastu hori, Udal Administrazioak "Lurzoruaren inguruko Ondasun Publikoari" dagokionez jasoko dituen aktiboa aintzat hartuta, halaxe xedatu baitute Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 111. artikulua eta hurrengoek.

Edonola ere, Udalaren programazio ekonomikoa bideragarria dela erakusten da.

Pasaian, 2009ko urria.  
Erredakzio taldea:

Luciano Pagaegi Bilbao  
SABAI arkitektoak, SLP

Juan Landa Mendibe  
EKAIN, SA